

ERASMUS+ MASTER JARRAIBIDEAK

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA: 2015ko IRAILAREN 28tik URRIAREN 2ra (biak barne).

ESKAERA NON AURKEZTU:

Erasmus mugikortasun programan parte hartzeko interesa duten masterreko ikasleek ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko diote bere masterreko idazkariari edo ikastegiko koordinatzaileari:

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- 1.- Eskaera inprimakiaren bi kopia, osorik beteta. Bertan **8 unibertsitate hautatu daitezke gehienez.**
- 2.- **NAN**aren fotokopia edo **NIE**, **indarrean delarik**. **PASAPORTEA EZ DA BALIO**
- 3.- **Ikasle eskatzailearen banku-datuak** agertzen dituen aurrezki-libretaren lehenengo orriaren fotokopia (**IBAN ere agertu behar da**), ekonomi laguntza bertan sartu ahal izateko. Ikasleak kontuko titular edo titularkide izan behar du.
- 4.- Hizkuntza ziurtagiri ofizialen kopiak.
- 5.- Ikasketa-espeditentaren kopia.
- 6.- Masterreko arduradunak sinatutako onarpen-gutuna, matrikula egiteko orduan betebehar guztiak betetzen direnetan.

OSO GARRANTZITSUA: osorik bete gabe dauden eskariak ez dira kontuan hartuko.